

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

4759

AGINDUA, 2023ko urriaren 2koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan jardungo duten Musikako eta Arte Eszenikoetako Irakasleen kidegoko Epaimahaien osaera (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko hautaketa-prozesua deitzen da).

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozesuak deitzen dira. Agindu horren 5.1 oinarriak xedatzen du hautaketa-organoez egingo dutela hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenen hautaketa. Organo horiek Hezkuntzako sailburuaren agindu bidez izendatuko dira, aipatutako Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren 5.2.2 eta 5.4 oinarriei jarraikiz.

Aipatutako 5.2.2 oinarriaren arabera, epaimahaiei dagokionez, Hezkuntzako sailburuak libreki izendatuko du epaimahaiburua. Beste lau epaimahaikideak izendatzeko, berriz, zozketa egingo da. Salbuespen gisa, titularren kopuru txikiagatik zozketa egiterik ez dagoen espezialitateetan, Hezkuntzako sailburuak titular funtzionarioak izendatuko ditu zuzenean. Era berean, salbuespen gisa, beste hezkuntza-administrazio batzuei eskatu ahal izango zaie espezialitateko edo, hala badagokio, dagokion kidegoko funtzionarioak proposa ditzatela epaimahai horietan parte hartzeko, edo horiek beste espezialitate bateko funtzionarioekin osatu ahal izango dira.

Aurreko paragrafoan adierazitako salbuespenezko aurreikuspena aplikatuta, eta kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoela deitutako Musika eta Arte Eszenikoen Kidegoko espezialitateetako karrerako funtzionarioirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindu honen eranskinean argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko oposizio-lehiaketaren bidez sartzeko Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran parte hartu behar duten Musikako eta Arte Eszenikoetako Irakasleen kidegoko epaimahaien osaera.

Bigarrena.– Agindu honen eranskinetan azaltzen diren hautaketa-organoeetako kideek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusten diren gorabeheraren batean sartuta badaude edo deialdi hau argitaratu aurreko bost urteetan kidego eta espezialitate berean sartzeko hautaprobetarako izangaiak prestatzeko lanetan aritu badira, ez dute prozeduran parte hartuko, eta Langileak Kudeatzeko zuzendariari hala jakinaraziko diote, frogagiriekin.

Hamar egun naturaleko epea izango da abstenitzea eskatzeko, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik hasita.

2023ko urriaren 19a, osteguna

Halaber, izangaiek hautaketa-organoetako kideak errekusatu ditzakete, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako baldintzak ematen badira.

Hirugarrena.– Agindu honen aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, dagokion salan, bi hilabeteko epean, aipatutako egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 2a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2023ko urriaren 19a, osteguna

ERANSKINA

Kidegoa: Musika eta Arte eszenikoak.
Espezialitatea: Ebakera eta ahozko adierazpena.

Titularra**Epaimahaiburua:**

Gracia Rubio, Mariano Pedro.

Epaimahaikideak:

Sanchez De los Santos, Juan Ignacio.

Garcia Largo, Consuelo.

Jiménez Reches, José.

Navarro Sainz de la Maza, Regina.

Kidegoa: Musika eta Arte eszenikoak.
Espezialitatea: Zuzendaritza-eszenikoa.

Titularra**Epaimahaiburua:**

Gracia Rubio, Mariano Pedro.

Epaimahaikideak:

Sanchez De los Santos, Juan Ignacio.

Garcia Largo, Consuelo.

Jiménez Reches, José.

Navarro Sainz de la Maza, Regina.

Kidegoa: Musika eta Arte eszenikoak.
Espezialitatea: Interpretazioa testu-antzerkian.

Titularra**Epaimahaiburua:**

Gracia Rubio, Mariano Pedro.

Epaimahaikideak:

Sanchez De los Santos, Juan Ignacio.

Garcia Largo, Consuelo.

Jiménez Reches, José.

Navarro Sainz de la Maza, Regina.

Kidegoa: Musika eta Arte eszenikoak.
Espezialitatea: Dantza garaikidea.

Titularra**Epaimahaiburua:**

Jiménez Reches, José.

Epaimahaikideak:

Pasicznik Martinez, Clara Angélica.

Navarro Sainz de la Maza, Regina.

Garcia Largo, Consuelo.

Gracia Rubio, Mariano Pedro.